

EUSKALTZAINDIA. Aita Villasante ordezkatzeko hautagaiak zein izango diren ez da jakingo azken-azkenera arte

**EUSKALTZAIN OSOAK**

Euskaltzaindiaren osoko bilkura 24 euskaltzain osok eratzen dute. Gaur egun, aita Villasanteren ordezkoa oraindik aukeratzeko dagoela, bilkuran honako kide hauek daude:

1. Patxi Altuna
2. Jose Antonio Arana-Martija
3. Miren Azkarate
4. Pierre Xarritton
5. Jean Louis Davant Iratzabal
6. Xabier Diharze Iratzeder
7. Patxi Goenaga
8. Jean Haritzelhar
9. Andres Iñigo
10. Xabier Kintana
11. Henrike Knör
12. Emile Larre
13. Juan Mari Lekuona
14. Beñat Oihartzabal
15. Francisco Ondarra
16. Txomin Peillen
17. Pello Salaburu
18. Juan San Martin
19. Ibon Sarasola
20. Jose Mari Satrustegi
21. Andres Urrutia
22. Patxi Zabaleta
23. Antonio Zabala
24. Aukeratzeko

Euskaltzaindiak martxoan hautatuko du Luis Villasante zenaren ordezkoa

Euskaltzain oso izateko hautagaiek otsailaren 23a dute aurkezteko azken eguna

Gorane Agirre | BILBO

Abenduan zendu zen Luis Villasante (Gernika, 1920-2000) idazle eta gramatikariak Euskaltzaindiko Osoko Bilkuran 1951. urtetik betetako postua hartuko duen euskaltzain osoa aukeratzeko prozesua hasia da.

Hilaren 26an Euskaltzaindiak Donostian egingo duen hilero-ko batzarrean, aita Villasantek utzitako postua betetzeko hautagaiak aurkeztu ahal izango dira. Edonola ere, otsailaren 23a arteko epea izango da hautagaiak aurkezteko. Egun horretan Euskararen Akade-

miak XII. Barne Jardunaldiak eta hileroko batzarra egingo du Lekeition.

Hautagai batzuk prozesuaren hasieran aurkeztu badiira ere, beste batzuek azken unera arte itxaroten dute beren hautagai-tza aurkezteko.

Jose Luis Lizundia Euskaltzaindiko idazkariak gogortzen duenez, «gerta daiteke eta gertatu da, esaterako, duela hiru urte Andres Urrutia euskaltzain oso hautatu zenean Donostian egokitu zen bilera egitea, eta lehendik bi hautagai izatea —Andres Urrutia eta Andolin Eguzkitza—. Bilera

14:00etan bukatzen bazen, 13:30ean aurkeztu zuten Andu Lertxundiren hautagaitza». Hori, gehitu zuen, «politikan moduan da, batzuek kartak ez dituzte azken unera arte agertzen».

Beraz, otsailaren 23an euskaltzain osorako zenbat hautagai eta nor diren jakingo da. Egun horretan, hilabeteko epea zabaltzen da, Lizundiak azaldu zuenez, «kanpaina egin nahi baldin bada».

Aita Luis Villasante frantziskotarraren ordezkoa datorren martxoaren 30ean hautatuko dute, Euskaltzaindiak Bilboko

egoitzan egingo duen bileran hain zuzen.

Isiltasuna nagusi da euskaltzain oso berrirako ustezko hautagaien inguruan. Inork ez du izenik eman nahi, eta «ikusiko da» diote galdetutakoek.

Akademiaren araudiaren arabera, euskaltzain oso izateko proposamena hiru euskaltzain osok izenpetu behar du. Proposamenduaz batera, zerrenda bat egin behar da, hautagai bakoitzak dituen merezimenduak xeheki aipatuz.

Euskaltzain oso hautatua izateko, euskaltzain osoen bozen nagusitasuna erdietsi behar da.

Lehen aldian euskaltzaingaitan nehork ere nagusitasun osorik erdiesten ez badu, bigarren bozketa egingen da, eta behar izanez gero hirugarrena ere bai. Hirugarren horretan nagusitasun osorik gertatzen ez bada, aulkia hutsik dagoela iragarriko da berriz ere; noizbait gertatu izan da hori.

Hautatuak hilabeteko epea du bere baiezkota emateko. Edonola ere, hautatzen dutenetik, gehienez, zortzi hilabateko epea dago kargua hartzeko ekidadia egiteko. Lehen sei hilabeteak euskaltzain oso berriak sarri hitzaldia idazteko dira. Hitzaldi hori, hautatuak berak nahi duen gaiaz egin dezake, baina aurreko euskaltzainaren —zeinen ondoko sartzen den— aipu edo oroitzapen egiten duela betiere. Azkeneko bi hilabetak, oster, euskaltzainburuak nahiz hark hautatu duen euskaltzain batek erantzunezko idazkia prestatzeko dira.

EUSKALKIAK

Bizkaitar izatea aukeran

Aita Villasante ordezkatzeko duen euskaltzain oso berriak ez du halabeharrez bizkaitarra izan behar. Akademiaren barne araudien arabera, Osoko Bilkurakoak behar dute izan: hiru bizkaitar, hiru gipuzkoar, hiru nafar, hiru behenafar, arabar bat eta zuberotar bat.

Jose Luis Lizundia Euskaltzaindiko idazkariak azaldu zuenez, «horiek ziurtaturik egonda, zilegi da hautatzen den euskaltzain oso berria aurrekoaren euskalki berekoa ez izatea. Hala

eta guztiz ere, ohitura izaten da hori errespetatzea, baina oreka zaintzeko ohitura hutsa da, beti bete ez dena». Horren adibide gisa, Federico Krutwig bizkaitarraren ordezkoa Andres Iñigo nafarra izan zela gogorarazi zuen.

Gutxieneko batzuk badien bezala, gehienez ere badagoela zehaztu du Lizundiak: euskalki batek ezin du zortzi euskaltzain oso baino gehiago izan. Dena dela, gogoratu beharra dago Euskaltzaindiak herrialde historikoa ez baizik euskalkika funtzionatzen duela. Adibidez, Juan San Martin gipuzkoarra da, baina Euskaltzaindirako bizkaieraduna.

BATASUNA PROZESUA
BERGARAN
HIRUGARREN BATZARRA
"Ildo politikoa"
txostenaren lehen zatia, hau da: Egungo egoera politikoa, ekonomiko eta soziala Euskal Herrian.
Urtarrilaren 24an, asteazkena, arratsaldeko 7etan
Elementaleko aretoan.
BERGARAKO EUSKAL HERRITARROK
euskaltzaindiaren
batasuna